


Oinarrizko gaitasunak EAEko Hezkuntza Sistematan



OINARRIZKO GAITASUNAK EAEko HEZKUNTZA SISTEMAN

EUSKO JAURLARITZA

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

Hezkuntza sailburuordetza
Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Educación
Dirección de Innovación Educativa

Berritzegune Nagusia

AURKIBIDEA

1.- OINARRIZKO GAITASUNAK

- 1.1.- Gaitasunetan oinarritutako ikuspegiaren jatorria
- 1.2.- Zer dira oinarrizko gaitasunak?
- 1.3.- Gaitasunak hezkuntzan

2.- OINARRIZKO GAITASUNEN BANAKATZEA

3.- OINARRIZKO GAITASUNEK CURRICULUMAREKIN DUTEN LOTURA

- 3.1.- Oinarrizko gaitasunak helburu orokorretan.
- 3.2.- Gaitasunak eta Curriculumeko beste elementu batzuk.
- 3.3.- Gaitasunen eta arloen arteko lotura.

4. ORIENTABIDE METODOLOGIKO OROKORRAK GAITASUNEN GARAPENARI LAGUNTZEKO

5. ORIENTABIDE OROKORRAK GAITASUNEN IKUSPEGITIK EBALUAZIOA EGITEKO.

6. BIBLIOGRAFIA

HITZAURREA

Laurogeita hamargarren hamarkadan zehar eta mende honetako lehen urteetan biziagotu egin da hezkuntza sistemak berritzearen gaineko kezka nazioartean, curriculumak ulertzeko modu berriengatik eta, azken finean, irakaskuntza eta ikasketa ulertzeko modu berriengatik.

175/2007 Dekretuan ezarritako curriculum berria Oinarrizko Irakaskuntzaren curriculumak zehazten da Euskal Autonomia Erkidegoan eta oinarrizko gaitasunen garapenean oinarritzen den derrigorrezko irakaskuntza baten alde egiten du, ELGE eta Europako Batasunak eremu horretan azken urteotan egindako proposamenak erreferente hartuta.

UNESCOren *“Ezagutza gizarteetarantz”¹* munduko txostenak adierazten du *“aurrerapen teknikoek azkartasunarekin gaitasunak egunerokotasuna galtzen dutenez, komenigarria da eremu guztietan ikasketa mekanismo malguak sustatzea, ezagutza multzo oso zehatz bat ezarri beharrean. Ikasten ikastea esan nahi du hausnartzen, zalantzatzen ikastea, ahalik eta azkarren egokitzen jakitea eta norberaren ondare kultura dudatan jartzen jakitea, adostutakoak errespetatuz. Horiek dira ezagutzaren giza-teek izan behar dituzten ardatzak.”*

Ilido horretatik, A. Pérez Gomezek² erantzen du: *“Horrela, bada, informazioaren eta jakintzaren giza-te honek hezkuntzari eskaera berriak egiten dizkio eta herritarretan bizitza guztian zehar ikasteko ahalmena garatzearekin lotura argia dute. Beste era batera esanda, arazoa ez da ikasleek hartzen duten informazio kopurua, baizik eta kalitatea: ulertzeko, prozesatzeko, hautatzeko, antolatze eta ezagutzan eraldatzeko gaitasuna; eta baita ere egoera eta testuinguru ezberdinetara aplikatzeko gaitasuna, proiektu propio eta sozialen balore eta asmoen arabera.”*

Planteamendu honek eskaera berriei erantzun nahi die, eguneroko bizitzarekin eta autonomiaz eta kritikoki moldatzeko benetan erabilgarri diren trebezia eta gaitasunak garatzearekin lotura dutenak. Horiek guztiak hezkuntzarako oinarrizko ideia dakar: eskolan lantzen den diziplina bateko edo diziplina arteko ezagutza ulertzea, ez helburu gisa, baizik eta gaitasunen zerbitzura dagoen tresna pribilegiatu gisa.

¹ Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (2005): *UNESCOren Munduko Txostena 2005: Jakintzaren gizarterako bidean*.

² Pérez Gómez, A. (2007): *La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas*, Cuadernos de Educación de Cantabria 1. zenb., Hezkuntza Saila, Santander.

1.- OINARRIZKO GAITASUNAK

1.1.- GAITASUNETAN OINARRITUTAKO IKUSPEGIAREN JATORRIA

Azken urteotan, munduak funtsezko aldaketak ezagutu ditu: bizitzeko moduetan, ekoizpen harremanetan, mugimendu demografikoetan, lorpen teknologikoetan... Eszenatoki sozial eta ekonomiko berri honek aldaketa eskatzen ditu etorkizuneko hiritarren prestakuntzan eta, hortaz, erronka ekidinezinak planteatzen dizkie hezkuntza sistemei, eskolei, curriculumari, irakaskuntza eta ikasketa prozesuei eta nola ez, irakasleei.

Erronka horiei aurre egiteko, hezkuntzaren munduak "gaitasun" terminoa barneratzen eta zabaltzen joan da, lehendik ere lan munduan erabiltzen zena. Gaitasunetan oinarritutako ikuspegia hezkuntzaren bidez aukera berdintasuna benetan lortzeko saiakera bat da, azpimarratzen baitu biztanle guztiek oinarrizko gaitasun batzuk lortzearen beharra eta eguneratzen duelako hezkuntza orokorrak banakoarentzako trebakuntza "oinarrizko eta nahikoa" eta komunitatearentzako trebakuntza "oinarrizko eta nahikoa" eskaini behar duela esaten duen printzipio pedagogiko zahar hori. Bestalde, erantzun bat eman nahi zaio eskola porrota ekiditeko eskaerari, ikasle guztientzako ezagutza maila nahikoa bermatuz.

Hezkuntza politikak arazo horren gaineko kezka dute iraultza kultural baten parte delako, eskola eta hezkuntza bere testuinguruan kokatu nahi duena iraultza bat, gertatutako aldaketa handiak oinarritzat hartuta, hala nola:

- Ezagutzaren gizartera sartzeko *eskakizun maila handitu* izana. Horren ondorioz, gizarteratzeko behar diren gaitasunak dituztenen eta ez dituztenen arteko banaketa sortu da eta bigarren horiek baztertuta geratzen dira.
- *Prestakuntza maila orokorra handitu* izana. Hala ere, biztanleen %10ak gutxi gorabehera ez du aitortutako titulaziorik.
- *Prestakuntzarako edukien etengabeko krisia*, berehalakoan zaharkituta geratzen baitira aurrerapen zientifiko eta tekniko azkarra eta horrek dakartzan egoera ekonomiko eta sozialak direla eta. Horrek garrantzitsuago bihurtzen du bizitzan zehar zerbait ikastearen gaitasuna indartzea, ezagutza multzo handi bat eman beharrean. Curriculumaren "inflazioa", hezitzaileak erabat gainditzen dituen eta maiz gizarte arazoen errua egozten zaie.
- *Eskolaz geroko bizitzarako orientazioa*, nabarmenduz ikasketen transferentzia bilatzearen beharra eta testuinguru askotan zuzen erabili ahal izatea.
- *Hezkuntza paradigmaren aldaketa*, orain ez da irakasle eta eskolarengan oinarritzen, baizik eta ikaslearengan. Korrante psikologiko eta pedagogiko ezberdinen ekarpena (konduktismoa, konstruktibismoa, inteligentzia emozionala lantzea etab.), ikasketen eraginkortasunari, esanahiari eta integrazioari garrantzia ematen diotenak.
- Azkenik, *emaitzen kudeaketa eta ebaluazio metodoen arteko oreka*, aitortuz hezkuntza sistemen kalitatea ez dela soilik baliabideen araberakoa (garrantzitsuak diren arren), baizik eta ebaluazioaren eta emaitzen kontrolaren araberakoa ere.

Azken finean, hezkuntzaren kalitatearen gaineko kezken ondorioz, arreta eskaintzen zaie oinarrizko gaitasunei; izan ere, ikasketak praktikan jartzea dute oinarri eta, horrela, errazagoa da transferentzia eta ebaluazioa, kalitatea eta ekitatea orekatzea helburu izanik.

Horrek guztiak curriculumaren birpentsatzera eramán gaitu eta oinarrizko hezkuntzan oinarrizkoa denari buruzko eztabaida sortu du, abiapuntutzat hartuta hezkuntza maila hauetan ezin daitekeela ume eta gazteek ikastea nahi genukeen guztia irakastea eta ikastea, ez eta zalantzarik gabe ume eta gazteentzako onuragarri dena. Aukeratu egin behar da.

Edukiak zabaldu edo sartzen direnean, beste batzuk baztertu edo murriztu behar dira, ikasketa berregituratuz, hezkuntza eta bere ingurua barne hartzen dituzten metodologia integratzaileak aplikatuz.

HAUSNARTZEKO

- Egungo gizartean sortzen diren erronken eta beharren aurrean, uste duzu curriculumak aldatu behar direla? Zertan?
- “Gaitasuna” terminoa hasiera batean lan munduan sortu izanak zer-nolako alde positiboak izan ditzake? Eta negatiboak? Zein beste aukera izan litzatekeen?
- Irakatsi eta ikasi beharreko edukiak areagotu direla ikusita, uste duzu beharrezkoa dela “oinarrizkoa” azpimarratzea, hau da, nahitaezkoa dena eta egoera askotan erabili daitekeena?

1.2.- ZER DIRA OINARRIZKO GAITASUNAK?

Ez dago “gaitasun giltzarri edo oinarrizko gaitasun” kontzeptuaren esanahi unibertsal bat, baina orokorrean gaitasun giltzarri edo beharrezko, funtsezko edo oinarrizkotzat hartzen dira edozein norbanakorentzat eta gizartearentzat onuragarriak direnak eta bada nolabaiteko adostasun bat "banako guztiek gizarteko kide aktibo gisa bizi on bat izateko behar dituzte oinarrizko ezagutza, trebezia eta jarrerak " definizioaren gainean.


Ikuspuntu horren arabera, eremu edo jarduera batean gai izatea honako hau esanahi du: ezagutza garrantzitsuak aktibatu eta erabiltzeko gai izatea eremu horrekin lotutako egoera eta arazoei aurre egiteko orduan. Hezkuntzaren munduan terminoak adierazten du testuinguru batean eraginkortasunez jokatzeko gaitasuna edo potentziala. Edozein motatako ezagutzak eraginkortasunez erabiltzea esan nahi du.

Gaitasunen inguruko hausnarketa prozesutik eratorritako dokumentuetako bat DeSeCO txostena da (*Gaitasunen Definizioa eta Hautaketa*). ELGEk egindako dokumentua da, 2000. urtean agertu zen lehenengoz eta 2003. behin betiko bertsioa zabaldu zen. Dokumentu horretatik abiatuta, ELGEko herrialde gehienek curriculuma birformulatzen hasi dira funtsezko gaitasunen inguruan (“Key competencies”), legedi berrian “oinarrizko” deitu zaienak.

DeSeCO txostenak gaitasuna terminoa honela definitzen du: *“eskaera konplexuei aurre egiteko eta mota askotako lanak zuzentasunez egiteko gaitasuna. Ahalmen praktikoan, ezagutzen, motibazioaren, balio etikoen, jarreraren, emozioen eta beste gizarte- eta jokabide-osagai batzuen konbinazioa da, eta horiek guztiak elkarrekin mugitzen dira egintza eraginkorra lortze aldera.”*

Bere aldetik, Europako Legebiltzarrak (2006) honela definitu ditu: *“gaitasunak testuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarreraren konbinazio bat dira. Gaitasun giltzarri dira pertsona guztiek behar dituztenak garapen eta errealizazio pertsonalerako, hiritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta lana lortzeko”.*

Beraz, “egiten jakitea” da, hau da, aplikatu egiten den jakintza bat, hainbat testuingurutara egokitzeko aukerak izango lituzkeena eta izaera integratzailea duena, ezagutzak, prozedurak eta jarrerak bateratuz.



Gaitasun bat giltzarri edo oinarrizkoa izateko, *DeSeCo Txostenaren* arabera, biztanle guztientzako baliotsua izan behar du, sexua, maila sozial eta kulturala eta familia ingurunea edozein dela ere, eta azpimarratzen du hiru baldintza bete behar dituela:

- Derrigorrezko irakaskuntzan edo hezkuntzan zehar garatzea.

- Transferigarria izatea, hau da, egoera eta testuinguru askotan aplikatu daitekeena eta
- Funtzio anitzekoa izatea, hainbat helburu lortzeko balio izatea, arazo mota ezberdinak konpontzeko eta lan ezberdinak egiteko.

Azkenik, gaitasuna ulertzeko beharrezkoa da ezaugarri hauek kontuan izatea:

- a) **Ezin dira zuzenean ebaluatu:** Eskola ikasketak “gaitasunen” bidez soilik definitzea, eduki eta ezagutza mota ezberdinak identifikatu gabe, engainakorra da eta gaitasun terminoarekiko kontraesana da. Gaitasun baten ikasketa ezagutza batzuk lortzearekin lotuta dago ezinbestean (ezagutzak, gaitasunak, baloreak, jarrerak, emozioak...). Gaitasun bat lortu edo garatzeko, hari lotutako ezagutza batzuk bereganatu eta lortu behar dira eta, horretaz gain, ezagutza horiek mobilizatu eta aplikatu behar dira. Horiek landu eta garatzeko edukirik egokienak aukeratu behar dira, maila ezberdinetako sekuentzia eta gradua definitu, lorpen adierazleak ezarri eta ikasleak egiteko lanak zuzentasunez proposatu.
- b) **Ez dituzte ordezkatzeko curriculumean egun aurreikusten diren elementuak;** izan ere, eskola curriculum osoaren ikuspegi integratu eta integratzaile bat planteatuz aurreikusten dituzte. Horregatik, beharrezkoa da helburuekin lotuta jartzea, arloen edukiekin eta ebaluazio-irizpideekin, eguneroko praktikan garatzea lortu nahi bada.
- c) Oinarrizko gaitasunak **ez dira gutxienezko ikasketak bailiran interpretatu behar.** Izan ere, curriculumek ikasketa multzo bat barne hartzen dituzte eta zentzu estu batean gutxienezkotzat har daitezkeenak baino zabalagoak dira. Gaitasun multzo hori ez da eskolan irakasten den guztia, baizik eta egungo gizartean bizi eta elkarbizitzeko eta ikasten jarraitu ahal izateko ezinbestekoa dena.
- d) **Ez dira independenteak, baizik eta elkarri lotuta daude.** Horien elementuetako batzuk elkarri osatzen diote eta elkar gurutzatzen dira. Horietako bakoitzaren garapena eta erabilera, aldi berean besteena ere behar du. Kasu batzuetan harreman hori zeharo bizia da, esaterako: hizkuntza-komunikaziorako gaitasunen oinarrizko elementuetako batzuk, hala nola, ikasten ikastekoak edo informazioaren tratamendurakoak, elkarrekin lotura estua dute eta gainerako gaitasunak garatu eta erabiltzeko oinarrizkoak dira. Esan daiteke Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, tresna denez gero, gaitasunetan zeharkakoena dela, hots, gainerako ezagutzak lortzeko bidea errazten duena. Azkenik, gaitasunen arteko lotura estu hori guztien parte diren elementuetan islatzen da. arazoak konpontzen, jarrera kritikoa, sormen ekimena, erabakiak hartzea arriskuak ebaluatuz eta, batez ere, informazioa aukera, tratatu, erabili eta komunikatzea.

1.3.- OINARRIZKO GAITASUNAK HEZKUNTZAN

Momentu honetan proposamen ugari aurki ditzakegu gaitasun giltzarri edo oinarrizkoen gainean. Urte hauetan zehar gaiari buruz eztabaidatu eta hausnartu da eta hezkuntza erakunde eta erakunde politiko eta ekonomiko askok gaitasun zerrenda propioa aurkeztu dute. Beheko laukiak laburtu egiten ditu gure curriculumean gaitasunak sartu arte jarraitu diren urrats garrantzitsuenak:

2000ko martxoan Lisboan egindako Europako Kontseiluaren bilerak helburu berri gisa proposatu zuen “munduko ezagutzaren ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko iraunkor baterako gai dena, enplegu gehiago eta hobeeekin eta gizarte kohesio handiago batekin”. Horretarako, 2001ko otsaileko Europako Batzordeak hamahiru helburu espezifiko eta hamahiru helburu kide zehaztu zituen eta ondorengo hamar urteetan praktikan jartzeko programa bat diseinatuz joateko, 2002ko otsailean.

- 1996. DELORS Txostena. Hezkuntzaren lau ardatzak: ezagutzen ikasi, ikasten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi.
- 2000. Lisboako Kontseilua. Oinarrizko gaitasunen testuinguru europar komuna lantzeko prozesua hasten da.
- 2002. ELGEk DeSeCo txostena prestatzen du, PISA probetarako oinarri dena.
- 2005. Definitzen da Europako Batasunean zeintzuk izango diren hezkuntzarako oinarrizko gaitasunak.
- 2006. Europako Legebiltzarrak estatu kideentzako gomendio bat onartzen du, haien curriculumetan gaitasun giltzarriak sar ditzaten.
- 2007. EAEko curriculumak oinarrizko gaitasunak barne hartzen ditu eta beste sei gaitasun orokor eransten ditu.

Aldi berean, 2000ko Lisboako Europako Kontseiluak gonbitea egin zien estatu kideei eta Batzordeari “bizitza osoan egiten den ikaskuntzaren gutxieneko trebetasunak” definitu zituzten eta horien barnean honako hauek zerrendatu zituen: *informazioaren teknologiak, atzerriko hizkuntzak, kultura teknologikoa, enpresa izpiritua eta gizarte trebetasunak*. Ondorengo saioetan trebetasunak baieztatu eta 2002an zortzi trebetasun eremu proposatu ziren:

- komunikazioa ama hizkuntzan
- atzerriko hizkuntzetan komunikatzea
- IKTak
- kalkulua eta matematika, zientzia eta teknologiako gaitasunak
- enpresa espiritua
- pertsona arteko eta gizalegezko gaitasunak
- Ikasten ikastea eta
- kultura orokorra.

2002koartzonako Europako Batzordeak eremu horiek berretsi zituen, azpimarratu zuen atzerriko hizkuntzak eta irakurmen digitala garrantzitsuak zirela eta era berean, hezkuntzaren eremu europarra piztu zuen.

Aldi berean, ELGEk aditu talde bati *DeSeCo Proiektua* egiteko agindu zion, laurogeita hamargarren hamarkadan. Azken txostena oinarrizko erreferentzia bat da, gaitasun

kontzeptuaren definizio bat eman eta arrazoitu zutelako eta gaitasun giltzarriak hiru maila handitan banatu zituztelako, lauki honetan biltzen direnak:

Gaitasun giltzarriak “DeSeCo Txostena” (ELGE)
1. kategoria: 2. TRESNAK ELKARRERAGINEAN ERABILTZEA
3. kategoria: 4. TALDE HETEROGENEOTAN ELKARRERAGITEA
3. kategoria: ERA AUTONOMOAN JARDUTEA

2004. urtetik aurrera, Europako Batasunak etengabeko ikasketarako gaitasun giltzarri multzo bat ezartzearen beharra mahairatu zuen, estatu kideen hezkuntza sistemarako erreferentzia izango dena, gaitasunak honela ulertuta: “banako guztiek haien burua garatu eta errealizatzeko, gizarteratzeko eta lan egiteko behar duten ezagutza, trebetasun eta jarrera pakete funtzio anitza eta transferigarria”.

“Etengabeko ikasketarako gaitasun giltzarriak, erreferentzia marko europar bat” dokumentuan Europako Batzordeak proposatutako gaitasunak (Europako Legebiltzarrak onartutako Gomendioa 2006ko otsailean), ELGEk DeSeCo txostenean ezarritakoengatik ezberdinak dira argi eta garbi, formulazioan eskola curriculumetako arlo eta ikasgai tradizioaletatik hurbilago baitaude.

GAITASUN GILTZARRIAK- Europako Batasuna 2006ko abenduaren 18ko Gomendioa, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluarena, etengabeko ikasketarako gaitasun giltzarrien ingurukoa (DOUE, 2006ko abenduaren 30a)
<ul style="list-style-type: none">- Komunikazioa ama hizkuntzan- Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea- Matematikarako gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak izatea- Gaitasun digitala- Gizarte eta gizalegezko gaitasunak- Kontzientzia eta adierazpen kulturalak- Ikasten ikasi- Ekintzailea izatea eta enpresa-espirtua edukitzea

Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoarentzat) oinarrizko gaitasunaren definizio bera mantentzen du

eta irizpide berak kontzepzio eta zentzuari dagokionez, baina terminologia eta edukietan zenbait aldaketa sartzen ditu, taula honetan ikus daitekeen bezala:

**OINARRIZKO GAITASUNAK-175/2007
OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna**
- **Matematikarako gaitasuna**
- **Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna**
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna**
- **Ikasten ikasteko gaitasuna**
- **Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna**
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**
- **Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna**

Ondorengo laukian jasotzen dira derrigorrezko hezkuntzaren etapetan gaitasun bakoitza definitzen duten elementuetako batzuk .

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna	Gaitasun honetan erreferentzia egiten zaio ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilpenari, errealitatea adierazi, interpretatu eta ulertzeko, jakintza eraikitzeke eta komunikatzeko eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta auto-erregulatzeko egiten dena.
Matematikarako gaitasuna	Zenbakiak, horien oinarriko eragiketak, sinboloak eta matematikaren alorreko adierazpenak eta arazoiketak erabili eta erlazionatzeko trebetasuna da, informazio-mota ezberdinak ekoiztu eta interpretatzeko, errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialei buruzko ezagutzak zabaltzeko eta eguneroko bizitzarekin eta lan-munduarekin zerikusia duten arazoak ebazteko.
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna	Ingurune fisikoarekiko elkarreraginei erreparatzen die gaitasun honek, hau da, ingurune fisikoaren alderdi naturalei eta gizakien ekintzaren ondorioz sortutakoei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko.
Gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa	Gaitasun honen muina da ikaslea informazioa bilatzeko, lortzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko eta ezagutza bihurtzekoa gai izatea. Trebetasun ezberdinak barne hartzen ditu: informazioa lortzetik hasi eta, behin tratatu ondoren, euskarri ezberdinetan transmititzera arte iristen da. Bertan sartzen da ere informazioaren teknologien erabilera eta komunikazioa, informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko funtsezko elementu gisa.
Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna	Gaitasun honek posible egiten du bizi den gizartearen errealitatea ulertzea, lankidetzan aritzea, bizikide izatea eta herritartasun demokratikoa garatzea gizarte anitz batean. Halaber, gizarte hori hobetzeko konpromisoa hartzea posible egiten du. Bertan sartzen dira

	hainbat ezagutza eta trebetasun konplexu, parte hartzea, erabakiak hartzea, egoera jakin batzuetan nola jardun aukeratzea eta hartutako erabaki pertsonalez arduratzea ahalbidetzen dutenak.
<i>Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna</i>	Ikasleak gaitasun hau eskuratzean, kultura- eta arte-adierazpenak ezagutu, ulertu, balioetsi eta kritikoki ebaluatzeko gai izango da, eta gaitasun hori erabiliko du aberasteko eta gozatzeko iturri gisa, kultura herrien ondarearen zatitzat joko baitu.
<i>Ikasten ikasteko gaitasuna</i>	Ikasten ikasteak esan nahi du ikasten hasteko trebetasunak izatea eta geroz eta eraginkortasun eta autonomia gehiagorekin ikasten jarraitzeko gai izatea, norberaren helburuei eta beharrei jarraiki.
<i>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</i>	Gaitasun honek, batetik, elkarren artean lotura duten balio eta jarrera pertsonalez jabetzeari eta horiek aplikatzeari heltzen dio; adibidez: erantzukizuna, pertseberantzia, norberak bere burua ezagutzea eta autoestimua, sormena, norberak bere buruari kritika egitea, emozioak kontrolatzea, aukeratzeko trebetasuna, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egitea, gogobetetasuna berehala asetzeko beharra luzatzeko aukera, akatsetatik ikastea eta arriskuak hartzeko gai izatea.

Euskal hezkuntza sistemarentzako oinarrizko gaitasun zerrendari dagokionez, aipatutako Oinarrizko Irakaskuntzen Dekretu horrek adierazten du *"oinarrizko gaitasunen artean badira izaera zeharkakoago bat duten batzuk, hala nola, ikasten ikastea, hizkuntza-komunikazioa, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, gizarte eta hiritar gaitasuna eta norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna . Beste batzuk lotura zuzenagoa dute curriculumaren arlo edo ikasgai zehatzekin; besteak beste: zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, matematika-gaitasuna eta kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna. Hala eta guztiz ere, oinarrizko gaitasun guztiak garrantzitsutzat jotzen dira. Izan ere, horietako bakoitzak bizitzan arrakasta izatea ekar dezake ezagutzaren gizartean. Aldi berean, eremu batean funtsezko diren alderdi batzuk beste baten gaitasunean lagundu egiten dute, eta horrek sarea eratzen du".*


Beharrezkoa da kontuan izatea gaitasun asko elkarrekin gainjarri eta lotzen direla eta eremu bateko oinarrizko alderdi batzuk beste batean gaitasunari laguntzen diotela. Hizkuntza, irakurmena eta idazketaren oinarrizko gaitasunak, kalkulua eta Informazio eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako oinarrizko funtsak dira eta era berean, ikasketa jarduera guztiak ikasten ikasteko gaitasuna dute euskarri. Marko osoari aplikatu ahal zaizkion alderdi batzuk daude, oinarrizko zortzi gaitasunen barnean daudenak: pentsamendu kritikoa, sormena, ekimenerako gaitasuna, arazoak ebatzea, arriskuak ebaluatzea, erabakiak hartzea eta sentimenduen eraikuntzaren kudeaketa.

2.- OINARRIZKO GAITASUNEN BANAKATZEA

Bada nolabaiteko eztabaida bat gaitasunak etapa eta mailaka banakatzearen egokitasunaz eta mugez. Marko europarraren proposamenak berak ohartarazten du ez dela zertan garrantzitsua izan behar, gaitasun eremu gehienetan, gaitasun bat lortzeko funtsezko mailen artean (oinarrizkotzat hartuta) ezberdintzea eta gaitasun bat menderatzea maila aurreratuenen artean. Izan ere, baliteke trebetasun bat egoera edo testuinguru jakin bateko arazoa konpontzeko moduan menderatzea nahikoa ez izatea beste egoera batean eta, horretaz gain, etengabe aldatzen dagoen gizarte batean, banako bati egiten zaizkion eskakizunak aldatu egiten dira egoera eta momentu batetik bestera.

Dena dela, nahiz eta ohartarazpen horrek aholkatzen duen derrigorrezko etapetako bakoitzean taxuz jokatzea gaitasunen banakatze sekuentziatua egiteari dagokionez, uste da nahitaezko tresna dela gaitasunak ebaluatzeko eta erabilgarria dela ikasgeletarako lan eta jardura didaktikoak egiteko. erreferentziatzeko tresna gisa.

Gaitasun bakoitzaren banakatzea hiru mailatan egituratu daiteke:




Gaitasun bakoitza hiru bloke edo eremu handitan egituratzen da, **dimentsio** izenekoak. Horiek, gaitasunaren eremu handiak diren heinean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan berdinak dira eta lehenago aurkeztutako gaitasun bakoitzaren deskribapenetatik datoz.


Dimentsio horietako bakoitza **azpigaitasunetan** banatzen da. Lehen zehaztasun maila horretan, azpigaitasun orokorren hasierako lotura bat proposatzen da eta, ondoren, etapetako bakoitzean zehazten dira.

Azkenik, azpigaitasun horietako bakoitzerako **ebaluazio-adierazleak** zehazten dira, hau da: ikasleak gaitasun bat menderatzen duela erakusteko zeregin edo ariketa batzuk egiteko gai izan beharko da eta ariketa edo zeregin horiek behagarriak izan beharko dituzte. Adierazle horiek argi adierazten dute ikasleak jakin eta egiten jakin behar duena eta ziklo eta maila zehatz batzuei erreferentzia egin behar diete.

Grafiko honetan gaitasunen banakatze edo garapena egiteko eskema hierarkikoa ikus daiteke:



Eskema hierarkiko hau gaitasun guztientzako berdina da. Ondoren, *Hizkuntza-komunikazioaren gaitasunarekin* adibide bat ikus daiteke.



Eskema horretatik abiatuta maila ezberdinetarako (etapak, zikloak, mailak) espezifikazio eta zehaztapenak egin daitezke, argi ikusi ahal izateko, gaitasunen garapenari dagokionez, maila bakoitzerako proposatzen diren ezberdintasunak.

Hurrengo orrietan, adibide gisa, Hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna eta Matematika gaitasuna garatzen dira Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBH 2. mailarako.

LH 4. maila

DIMENTSIOA AHOZKO ADIERAZPENA

DBH 2. maila

Azpigaitasuna: Egokitasunez adieraztea ikasleentzako interesgarriak diren ahozko testu errazen bidez

Adierazleak:

- Argitasunez eta arintasunez adierazten da.
- Prosodiako elementuak eta keinuak erabiltzen ditu.
- Testuaren generoaren ezaugarri propioak errespetatzen ditu.
- Adierazpide baztertzailak ezagutzen ditu.

Azpigaitasuna: Egokitasunez eta zuzentasunez adieraztea ikasleentzako interesgarriak diren ahozko aurkezpen soilak egitean

Adierazleak:

- Argitasunez, zuzentasunez eta arintasunez adierazten da.
- Prosodiako elementuak eta keinuak egokitasunez erabiltzen ditu.
- Hartzailea bereganatzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Testu generoaren arauak errespetatzen ditu.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzen ditu.

LH 4. maila

MATEMATIKARAKO GAITASUNA-1. DIMENTSIOA

DBH 2. maila

1. Azpigaitasuna: Oinarriko zenbakizko ezagutzak erabiltzea, egunerokoaren testuinguru ezberdinetan dauden zenbakizko informazio eta mezuak interpretatu, ulertu, ekoiztu eta komunikatzeko eta zenbakizko arazoitze bat behar duten arazoak konpontzeko.

Adierazleak:

- Zenbakiak irakurri eta idazten ditu.
- Zenbakiak erkatu eta ordenatzen ditu.
- Zenbakiak osatu, deskonposatu eta biribiltzen ditu.
- Adierazpen grafikoa ezagutzen du, oinarriko zatikiak irakurri, idatzi, erkatu eta ordenatzen ditu.
- Zenbaki serie errazak ezagutu, eraiki eta osatzen ditu.
- Zenbaki naturalen balioa interpretatzen du eta zenbakizko testuetan agertzen diren zatiki errazak baita ere. Ahoz eta idatziz emandako zenbakizko informazio eta mezuak ulertu, interpretatu, ekoiztu eta komunikatzen ditu.
- Zenbakizko igarkizun eta jokoak eta zenbakizko buruketak egin eta ebazten ditu.

1. Azpigaitasuna: Zenbakizko ezagutzak erabiltzea, egunerokoaren testuinguru ezberdinetan dauden zenbakizko informazio eta mezuak interpretatu, ulertu, ekoiztu eta komunikatzeko eta arazoak konpontzeko.

Adierazleak:

- Zenbaki mota ezberdinak irakurri, idatzi eta ezagutzen ditu (naturalak, osoak, zatikiak eta hamartarrak).
- Zenbaki mota ezberdinak ordezkatzeko sinboloak ezagutzen ditu.
- Zenbakiak haien artean erkatu eta ordenatzen ditu.
- Zenbakiak haien artean lotzen ditu. Zenbakizko mezuak ulertu eta interpretatzen ditu.
- Testuinguru ezberdinetan dauden zenbakizko informazioak komunikatzen ditu.
- Zenbakizko ezagutzak integratzen ditu eta arazo eta ariketak ebazteko erabiltzen ditu.

HAUSNARTZEKO

1.- Aurreko curriculuma LOGSEtik sortutakoa da eta ikasleengan gaitasunak garatu nahi zituen. Zure ustez zer ezberdintasun dago ahalmen eta gaitasunaren artean? Zer nolako eragina du horrek ikasgelako egunerokoan?

2.- Uste duzu Europako Batasuneko curriculumetan sustatutako oinarrizko gaitasunak nahikoak direla ikasleek aurre egin diezaieten gizartearen izango dituzten erronkei? Horrez gain, gehitu litezke: Zeinetan?

3.- Zer nolako erabilgarritasuna du gaitasunak banakatzea ikasgelan lan egiteko? Zure egunerokoari lotutako adibide bat aipatu.

3.- OINARRIZKO GAITASUNEK CURRICULUMAREKIN DUTEN LOTURA

3.1.- OINARRIZKO GAITASUNAK HELBURU OROKORRETAN

Arlo eta ikasgaietako curriculum berrietan, helburu orokorrek gaitasunen lorpena dute irizpide. Halaber, helburuetako bakoitzak gaitasunak suma daitezke, jarraian ikusten den adibidean bezala:

GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea izango da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiaren helburua:	Zientzia kultura	Matematika	Hizkuntza-komunikazioa	Informazioa eta digitala	Kulturala eta artistikoa	Soziala eta hiritarra	Ikasten ikasi.	Autonomia
2. Ingurune fisikoaren oinarritzko elementuak zenbait eskalatan identifikatzea, kokatzea eta aztertzea, elementu horien arteko elkarrekintza ulertzeko, giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenaren arlokoak baloratzeke. Horren xedea izango da eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko modua hobetzea.	X	X				X	X	
3. Europako eta munduko geografia-aniztasunaren eta eremu geologiko eta ekonomiko handien oinarritzko ezaugarriak identifikatzea, kokatzea eta autonomiaz aztertzea, baita Euskal Herriko ezaugarri fisikoak eta giza ezaugarriak ere. Horren guztiaren xede izango da etorkizunean behar bezala aurre egin ahal izatea intereseko gizarte-arazo edo –auzi orori.		X				X	X	
9. Kultura-aniztasunari balioa ematea, herrien eta norbanakoaren nortasun-eskubidetzat hartuta; gure komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna aintzat hartuz, posible izango da horietan aktiboki parte hartzea, gainerako kulturekiko tolerantziatzko eta errespetuzko jarrerak izanda.						X	X	
12. Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denbora-orientazioa (iragana, orainaldia, etorkizuna); kokapen erlatiboa denboraren barruan (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupena (gertaera faktualak, koiunturazkoak, egiturazkoak, iraupen labur, ertain edo luzeko fenomenoak); denboraren neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa). Horiek guztiek gizartearen bilakaera eta urteen joanean gerta daitekeena antolatzeke eta laburbiltzeko balio dute.		X				X	X	
13. Hainbat iturritako informazioa zorrotzasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea; informazioa mota askotakoa izan daiteke: hitzezkoa, grafikoa, ikonoen, estatistiken eta kartografiaren bidez emandakoa, ingurune fisikoak eta sozialak ematen duena, eta komunikabideek eta informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dutena. Ikasleak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan komunikatu behar ditu informazio-bilaketaren emaitzak.	X	X	X	X	X	X	X	X
14. Ikaslearen partaidetzako nahiz erreferentziatzko taldeen eta erakundearen antolamendu-egiturak eta ohiko funtzionamendu-moduak aztertzea, gizarte demokratikoen baitan; betiere, horiek guztiek oinarritzat dituzten funtsezko balioak eta printzipioak aintzat hartuta, eta hiritarren eskubideei eta askatasunei erreparatuta. Hori eginez, gizartearen parte-hartze kontzientea, arduratsua, kritikoa eta erabatekoa bultzatu nahi da; diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten jarrerak eta egoerak salatuko dira, eta eskubiderik gabeko edo nahitaezko baliabide ekonomikorik gabeko herri, talde sozial eta pertsonekin jarraera solidarioa hartuko da.					X	X	X	
15. Europako erakundeak eta haien antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea eta aztertzea, ulertu ahal izateko Europako Batasuna dela Europako herrien eta nazioen harreman- eta partaidetza-esparrua.					X	X	X	
16. Irakasgaiaren edukiak nork bere erara eta sormenez adieraztea eta komunikatzea, zenbait hizkuntza erabilita datuak eta informazioak aukeratuta eta interpretatuta, eta nork bere ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartuta.	X	X	X	X	X	X	X	X

3.2.- GAITASUNAK ETA CURRICULUMEN BESTE ELEMENTU BATZUK

Eremu eta irakasgai bakoitzaren helburu orokorretan gaitasunak sartu direnez, gainerako curriculumeko elementuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak gaitasunetarako lotura estua dute. Jarraian, harreman horren adibide bat ikusi daiteke: "Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala" hizkuntzaren eremuetako curriculum elementuekin lotzen da.


GAITASUNEN ETA CURRICULUMENKO ELEMENTUEN ARTEKO LOTURA

OINARRIZKO GAITASUNA	ARLOAREN HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
GAITASUN DIGITALA ETA INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA	<p>1. Hizkuntza erabiltzeko eremu desberdinetatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p> <p>2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta elkarrekin jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia desberdinei eraginkortasunez erantzuteko.</p> <p>7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.</p>	<p style="text-align: center;">I. BLOKEA:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. . Entzuteko egokiak diren informazioak identifikatzea eta hautatzea; entzuten jakitea. . Beharrezko informazioa bilatu eta aukeratzeko, iturri desberdinak erabiliz: iturri analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak. . Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko. <p style="text-align: center;">II. BLOKEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> . Eguneroko bizitzari buruzko testu idatzietatik eta ikasle-interes hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuenak ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea. . Ikasleen bizitza akademiko testu idatziak ulertzea, eta curriculumeko hainbat irakasgaitako narrazioen, deskribapenen, glosarioen nahiz azalpen-testu sinpleen ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea. . Hainbat testuingurutako komunikazio helburuak dituzten idatzizko testuak ekoiztea, paperean edo euskarri digitalean, aurrean planifikazio bat eginda: gutunak, oharak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak, kontuan hartuta komunikazio-egoera eta egokitasun, koherentzia eta kohesio nahikoaz adieraziz. . Plangintza egin ondoren, bizitza akademiko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); bereziki, laburpenak, azalpen laburrak, eta narrazio-, deskribapen- eta azalpen-testuei buruz egindako lanen eta ikaskuntzen ondorioak. Horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira. . Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko. . Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko. -Testu idatziak paperean nahiz euskarri digitalean txukun aurkezteko interesa izatea. <p style="text-align: center;">BLOQUE IV</p> <ul style="list-style-type: none"> . Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea. . Edozein euskarritan eskola hiztegiak ematen duten hizkuntza informazioa interpretatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> . Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu. . Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du. . Irakurketarako egokiak diren informazioak identifikatzen eta ondorioztatzen ditu. . Landutako testuaren egitura osoa eta bere atalen arteko lotura logikoak berreraikitzen ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak. . Beharrezko informazioa bilatu eta aukeratzeko, iturri desberdinak erabiliz: iturri analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak. . Ahozko aurkezpenak egitean, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, laguntza moduan. . Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen ditu, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko. . Helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa hautatzen du. . Bilatzaileak erabiltzen ditu informazioa aurkitzeko. . Informazioa gordetzen eta berreskuratzen daki. . Beste norbaiten laguntzari esker, gai da web orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratzeko eta inprimatzeko. . Testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu: edizioa, zuzentzaile ortografikoa... . Testu-prozesadore baten funtzio estandarrik gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu, eta tresna hori baliatzen du ahozko aurkezpenetan laguntzeko nahiz testu idatziak sortzeko. . Testu literarioak ekoiztea eta hainbat generotako testuak idaztea, paperean edo euskarri digitalean.

3.- GAITASUNEN ETA ARLOEN / IRAKASGAIEN ARTEKO LOTURAK

Azken finean, oinarrizko gaitasunen eta ezagutza arlo eta irakasgaien arteko lotura oso estua da. Ondoren aurkezten diren koadroetan ikus daitezke, era eskematikoan, arlo eta irakasgai bakoitzak gaitasun bakoitzari egiten dion ekarpena.

OINARRIZKO GAITASUNAK



LEHEN HEZKUNTZA – ARLOEN EKARPENA GAITASUNEN GARAPENEAN

G A I T A S U N A K

ARLOA	Komunikazio linguistikoa	Matematika	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura	Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta ekimen pertsonala	Kultura humanistikoa eta artistikoa
PLASTIKA ETA IKUSIZKO HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili, ulertu, manipulatatu edo sortu ikusizko kulturako produktuak (publizitatea eta beste batzuk), ahozko zein idatzizko hizkuntzarekin lotura ezinbestekoa dutenak (poetikoa, erretorikoa, sinbolikoa...) - Hiztegi espezifikoa. - Garatu lan prozesuen transkribatzea, emandako irtenbideak argudiatzea eta lan artistikoaren balioestea. 	<p>Espazioaren errepresentaziorako sistemak eta kontzeptu zein baliabide geometrikoak erabili, edozein motako objektuak diseinatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Neurri, proportzio eta posizioak erabili formen arteko erlazioak ulertzeko. - Lan egin artearen historia eta pentsamendu matematikoaren artean dauden eremu amankomunetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Metodo zientifikoarekin lotutako prozedurak erabiltzea: behaketa, esperimentazioa, aurkikuntza, analisisa, ondorengo hausnarketa... - Espazio fisikoa eta gizakiaren jardura espazioa ezagutu: bizi garen inguruarekin dugun erlazioa, eta horri buruz egindako ikusizko arrazoibideak. - Artea abantailazko espazio bat da, gure ingurune fisiko eta naturalarekin lotutako arazo guztiei buruz hausnartzeko eta kritika egiteko aukera ematen baitu: ekologia, iraunkortasuna, ingurugiroaren degradazioa... 	<ul style="list-style-type: none"> - Irudia eta soinuaren oinarrituta dauden informazio eta komunikazio euskarri berriak erabili: txostenak, aurkezpenak, informazioaren bilaketa, argazkiak, mezuak... - Irudiak ulertu eta manipulatzeko gaitasunak ikasi. - Hizkuntza teknologiko-digitala erabili, eguneroko bizitzan balio estetikoak duten mezuak sortzeko. - Irudi digitalean euskarria duten lan artistikoen garapena, gozamina eta analisisa, ikus-entzunezko multimedia ingurunearekin lotuta. 	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen bitartez, norberak bere kontzientzia eskuratzen du, bere ahalmenak kudeatzen ikasten du eta ezagutza berriak jasotzen ditu: erabakiak hartu, baliabide egokiak bilatu, eman beharreko pausuak hausnartu, erabakiak hartzeko argudio eta arrazoiak zehaztu, egindako ikasketen balantzea burutu.... - Besteengandik ikasi eta lankidetzan jardun. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gertaera artistikoak, horiek sortu dituzte gizartearen elementu kultural gisa ikus daitezke: Balioak; gako ekonomikoak, ideologikoak, teknikoak, erlijiosoak, zientifikoak... - Artea eta ikusizko kulturaren ekoizpenak, banakakoen zein kolektiboen nortasunak eratzeko prozesuan ekarpen bat egiten duten elementuak dira. - Artearen erabilera sozialak. - Ekoizpen artistikoa aproposa izan daiteke talde-lana burutzeko esparru gisa, errespetua, bizikidetzaren tolerantzia eta elkartzasuna lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sormen prozesuak ahalegin pertsonal bat eskatzen du, planifikazio bat, baliabideak aukeratzea ekoizpenaren adierazpen asmoen arabera, eta fase bakoitzean ordura arte egindakoaren berrikuspena, hobetzeko ideiarekin. - Sormen proiektua ekintza autonomo gisa ere ikus daiteke, ekimen ezberdinak martxan jartzen dituen, eta aukera nahiz irtenbide ezberdinak aztergai dituen. Halaber, Emozioak eta nortasuna adierazteko ere erabili daitezke. 	<p>Gizakienganako hurbilketa adierazten dute zenbait gertaera artistikoak: pentsamenduetara, gertaera horietan inplizituak diren jarreretara eta baliabide material zein teknikoak erabiltzeko gaitasunetara.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezagutu, alde batetik, gizarteak arteari dagokionez jarrailutako bideak, eta bestetik, gizarte honek arteari eman dizkion eta ematen dizkion erabilera eta funtzioak. - Kultura estetiko zabal baten ideia hartu: moda, zinea, musika, gorputz-estetikak... - Pentsamendurako eta hausnarketa kritikorako gaitasunak garatu, kultura maila altuko ekoizpenak eta eguneroko estetikak lotuko dituztenak. - Eskura duen eskaintza kulturala ulertu eta gozatzeko (museoak, kontzertuak, laborimetraia jaialdiak, zinema jaialdiak...)

GAIA	G A I T A S U N A K							
	Komunikazio linguistikoa	Matematika	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura	Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta ekimen pertsonala	Kultura humanistikoa eta artistikoa
MUSIKA	<p>- Musikari dagokion hiztegi espezifikoak ikasi eta erabili.</p> <p>- Musikak ekarpena egiten du, besteen artean, ondorengo alorretan: fonetika, doinua, azentuak, ahoskatzea...</p> <p>- Doinuaren egitura ordenazio sintaktikoetatik abiatu daiteke, soinu unitateetan oinarrituta daudenak, adibidez, esaldiak esaldi zatiak, atalak...</p> <p>- Musika obren antzekotasuna testu linguistikoekin: sarrera, azalpena, garapena, laburbiltzea, ondorioa...</p> <p>- Hainbat hizkuntzatan testuak erabiltzen dira musika bokalean, testu eta musikaren arteko loturak, elkarrekiko eraginak instrumentuekin...</p>	<p>Errepresentazio moduak eta pentsamendu logiko nahiz espaziala erabiltzen dira.</p> <p>- Ideia musikalen irudikapena, hainbat zeinu eta grafien bidez, horien artean: pentagramak, tablaturak, klabeak, notak, figurak, isiltasunak, metronomoen jarraibideak, eta beste adierazpen grafiko ez konbentzionalak.</p>	<p>- Espazio fisikoan ematen diren fenomeno akustikoak eta musika ezagutu eta haiei buruz hausnarketa egin. Gizakiak bere jarduerarekin aldaketak eragiten ditu eta ondorioz soinu-paisaia berria sortzen dira. Ahotsa eta gorputza adierazpide bezala erabiltzen dira...</p> <p>- Entzumen-bazterketa eta entzumen aktiboaren gaitasunak garatu.</p> <p>- Ezagutzak aplikatu, musikaren erabilera eta funtzioak identifikatu, horiei buruz hausnartu eta ondorioak ateratzeko. Gauza bera egin ondorengo aspektuekin: soinua eta isiltasuna, eta bere eragina ingurugiroan; osasuna eta bizikalitatea (gehiegizko zarata eta kutsadura-akustikoa).</p>	<p>- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabili autoikaskuntza jardueretarako, komunikaziorako, adierazpenerako eta sormen musikalerako: grabazio teknikak, soinua harrapatzeko, editatzeko, manipulatze eta grafikoki adierazteko aukerak, partiturak ordenagailuak editatu, soinu formatu ezberdinekin lan egin, entzumena lantzeko programak, akonpainamendu musikalak sortzeko programak, multimedia ekoizpenak sortzeko aukera...</p> <p>- Saretik eta ikus-entzunezko beste iturri batzuetatik datorren informazio musikala bilatu, lortu, hautatu eta tratatu. Gainera, informazio hori ezagutza eta ekoizpen musikalak komunikatzeko, konpartitzeko, trukatzeko eta argitaratzeko erabiliko da.</p>	<p>- Ikaskuntza gidatu eta autonomorako erabilgarriak diren ahalmen eta trebetasunak garatu: arreta, kontzentrazioa, memoria, ordenaren zentzua eta analisisia.</p> <p>- Obra musikalak behin eta berriz entzutea, horiek ezagutzera iritsi arte, bere elementuak identifikatzeko gai izan arte, eta beraien "jabe" egin.</p> <p>- Musikaren interpretazioarekin eta entzumenaren entrenamenduari lotutako jardueretan ematen diren prozesuak ongi kontrolatzeko, beharrezkoa da zenbait ikasketa eta kudeaketa estrategia erabiltzea. Hemen ikaslea behar horietaz jabetzen da, eta estrategia horiek erabiltzen ditu.</p>	<p>Musika komunikatzeko tresna gisa, banaka edo taldeka: norberaren ekintzen koordinazioa taldeko beste partaideekin bat etortzeko; eta, taldearen eta norbanakoaren artean dagoen erlazioari buruzko hausnarketa, aspektu ezberdinei dagokienez: denak batera jardun edo bakoitzak bere erritmoa erabiltzeko aukera, talde-lana eta koordinazio moduak...</p> <p>- Besteekin erlazioatzeko gaitasunak garatu, eta talde-lanaren emaitza izango den helburu bat lortzeko erantzukizuna hartu.</p>	<p>- Interpretazioa landu: pentsatu, kritikatu, balioetsi, erabakiak hartu, entzun, ikusi, besteena balioetsi, ikasi, sortu, antolatu.</p> <p>- Instrumentu taldetan nahiz talde bokaletan parte hartzeak, eta konposizio musikalak aurretiko planifikazio bat behar duten jarduerak dira. Halaber, beharrezkoa da erabakiak hartzea nahi diren emaitzak lortzeko: enpatia, bere burua gaintzeko nahia, autokritika, autoestimua, erantzukizuna, talde-lanerako eta malgutasunez lan egiteko gaitasun sozialak...</p>	<p>Kultura, garai, eta estilo ezberdinetako adierazpen kultural eta musikalak estimatzeko, ulertzeko eta era kritikoan baloratzeko gaitasuna garatu. Halaber, gain izango da, obra bakoitza beste hizkuntza artistiko batzuekin erlazioatzeko, eta baita ere, obra bere testuinguru sozial eta historikoarekin lotzeko.</p> <p>- Gertaera musikala norberaren gozamenerako eta aberasterako iturri gisa ikusten da.</p>

	G A I T A S U N A K							
	Komunikazio	Matematika	Zientzia-,	Informazioa	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta	Kultura

GAIA	linguistikoa		teknologia- eta osasun-kultura	tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna			ekimen pertsonala	humanistikoa eta artistikoa
TEKNOLOGIA	<ul style="list-style-type: none"> - Gaiari lotutako hiztegia. - Mota ezberdinetako testuen irakurketa eta ulermena: azalpenak, Webeko hipertestuak, ekoizleen katalogoak, testu-liburuak, entziklopedia espezializatuak... - Besteen ideiak jarrera ulerkeraz entzuteko prozesuak, eta norberaren argudioak adierazteko prozesuak. - Testuak zuzen idazteko, eta, prozesuen nahiz emaitzen komunikaziorako hitzaldiak osatzeko trebetasunak landu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Estimazioa eta doitasuna erabili, arazo praktikoak ebazteko. - Notazio numerikoak, sinboloak eta adierazpenak erabili, errealitatearen aspektu kuantitatiboak lantzeko. - Kalkulurako metodo egokiak eraili, eta eragiketarako egin: neurriak, algoritmoak, taulak, eskalak, grafikoak, eskemak, adierazpen matematikoak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Makina eta tresnak erabili, objektuen eta sistema teknologikoen analisia egin, eta bere manipulazioa eta transformazioa egiteko trebetasunak lortu. - Kontsumo egokia, iraunkortasunarekiko errespetua, jarrera etikoa eta kritikoa inguruaren gaineko esku-hartzearekiko, esku-hartzea zein naturala izan: artifiziala irtenbide teknikoak planifikatu, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak jarraituz, baina aurrezteak eta hondakinen kontrolaren alde eginez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ordenagailua eta ikus-entzunezko baliabideak erabili arazo praktikoak ebazpena lortzeko fase ezberdinetan: informazioaren bilaketa; ideiak testu-prozesadoreen bidez adieraztea; kontzeptu-antolatzaileak, edo marrazketa teknikoak nahiz arte grafikoa lantzeko softwarea; kalkulu-orriak, eta simulazio-programak, aurkezpen-programak, argazkiak, bideoak, infografiak, Web orriak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Arazo praktikoak ebazteko estrategiak garatu: egingo dena planifikatu (ekintzak aurreikusi, ebaluatu...), aurretik zegoen informazioa eta esperientziarekin lortutakoa kudeatu, jardueraren ebazpenarekin jarraitu ahal izateko eta lortutako ezagutza beste egoeratar transferitu ahal izateko. - Meta-ezagutza, ezagutza, eta pentsamenduaren beraren kontrola garatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-lana garatu, arazo praktikoak ebazpenari begira: parte-hartzea, konpromisoa, lankidetzak, elkarrekintzaren ondorioz sortutako gatazken konponketa... - Gizartearen antolaketa eta funtzionamendua ikus daiteke, garapen teknologikoa eta historian zehar nahiz gaur egun dauden eredu sozial zein ekonomikoen arteko erlazio gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aldaketak eragiteko gaitasuna garatu, norberaren ekintzen erantzukizuna hartzeko, eta helburuak ezarri eta betetzeko gaitasunekin batera. - Arazo praktikoak ebazteko metodoak erabili daiteke ekintzaitzaren fase ezberdinen jarraipena egiteko: konpondu daitezkeen arazoak detektatzeko (arreta, galderak egin bere buruari...), informazio garrantzitsuaren erazketa (operadore, objektu, programa eta sistemen analisia), sormen fasea (planteamendua eta irtenbideak proposatzea), egite fasea (mugen onarpena, erroreak ikasketak iturri gisa aitortu) eta ebaluaketa eta ondorio fasea (ezagutza maparen berrantolaketa, ondorioak aterata...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Arazo praktikoak ebazteko modu ezberdinak une historiko ezberdinetan. - Irudimena eta sormena produktuen balio erantsi gisa.

GAIA	G A I T A S U N A K							
	Komunikazio	Matematika	Zientzia-,	Informazioa	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta	Kultura

	linguistikoa		teknologia- eta osasun-kultura	tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna			ekimen pertsonala	humanistikoa eta artistikoa
LATINA	<p>- Latina ezagutzeak erromantze jatorriko hizkuntza europarren gramatika funtzionala ulertzen laguntzen du. Halaber, beste hizkuntza batzuen zenbait aspektu ulertzen ere laguntzen du, adibidez, euskara: ekarpen lexikoak, elementu morfosintaktikoak, hitzak sortzeko prozedurak...</p> <p>- Latinaren historia eta eboluzioa ezagutu, hizkuntzek aldatzeko duten ahalmenaren adibide gisa, denboran zehar, eta eremu sozial eta geografikoen arabera. Latinak, gainera, hizkuntza guztienganako interesa eta errespetua lantzen laguntzen du, antzinako hizkuntzak eta hizkuntza txikiak barne.</p>	<p>- Latinaren ikasketak zenbait prozesu matematikoren ikasketan laguntzen du (ordena, logika, artikulazioa, eta koherentzia). Funtsean, prozesu horiek burutzen dira, latinez dauden testuak analizatu, itzuli eta interpretatzen direnean.</p> <p>- Matematika-hizkuntzan dauden latinismoak eta etimo latinoak ezagutzeak kontzeptuen, enuntziatuen eta beste eduki matematiko batzuen ulermena hobetzen laguntzen du.</p>	<p>- Analisi eta ikerketa zientifikoko metodoak erabiltzen dira (konparaketa, dedukzioa, hipotesiak burutzea, datuen balorazioa...) latinaren eta hizkuntza erromantzeen egitura aztertzerakoan.</p> <p>- Hizkuntza zientifikoan dauden latinismoak eta etimo latinoak ezagutzeak kontzeptuak, enuntziatuak, printzipioak eta teoria zientifikoak hobeto ulertzen laguntzen du.</p>	<p>- Informazioaren bilketa, hautaketa eta analisiarekin lotutako jarduerak egiten dira.</p> <p>- Sintesi teknikak aplikatzen dira, gako hitzen identifikaziorako teknikak eta ideia nagusia eta bigarren mailakoak banatzeko teknikak.</p>	<p>- Trebetasun hauek lantzen dira: autonomia, diziplina, hausnarketa kritikoa. Horrekin batera, pentsatzeko, antolatze, buruz ikasteko eta informazioa berreskuratzeko estrategiak lantzen dira: laburpenak, eskemak, kontzeptu-mapak.</p>	<p>- Erromatarren erakundeak eta bizimodua ezagutu, erreferente historikoa dira aspektu hauei dagokienean: antolaketa soziala, hiritarren parte-hartzea bizitza publikoan, eta norbanakoen nahiz kolektiboen eskubide eta betebeharrak mugatzeko garaian.</p>	<p>- Planifikazioa, aukera ezberdinak ebaluatzea eta erabakiak hartzea eskatzen duten prozedurak erabili.</p>	<p>- Gure herrialdean eta Europan, erromatarrek utzitako ondare arkeologiko eta artistiko izugarria existitzen da. Ondare hau ezagutu behar da, alde batetik, gozamenerako, gizakiak sortutako artea, eta bestetik, historiaren testigantza gisa, ondare hori zaindu dadin interesa sustatzeko.</p> <p>- Gainera, erreferentziak ematen ditu geroago kultura eta mitologia grekolatindarretan oinarrituta zertu diren artelanak kritikoki ebaluatzeko, edo gauza bera egiteko komunikabideek zabalduko mezuekin, haiak, askotan, ondare klasikotik hartzen baitute beren ikono-oinarria.</p>

G A I T A S U N A K								
	Komunikazio	Matematika	Zientzia-,	Informazioa	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta	Kultura

GAIA	linguistikoa		teknologia- eta osasun-kultura	tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna			ekimen pertsonala	humanistikoa eta artistikoa
INFORMATIKA	<ul style="list-style-type: none"> - Testuen prozesamendurako aplikazioak erabili, testuak osatzeko eta editatzeko laguntza gisa. - Beste hizkuntzetako hiztunekin elkarrekintza burutzen da, hizkuntza hauen erabilera funtzionala bilatzen delarik. - Hainbat Baliabide teknologiko erabiltzen dira. Baliabide horiek abantailazko komunikazio testuinguruak dira, iritzien, informazioaren, eta ezagutzen trukaketarako, denbora eta espazioak jartzen dituzten mugarik ez dutelako. - IKTetako komunikabideek erabilitako berezko hizkuntza interpretatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kalkulua, datuen errepresentazioa eta problemen ebazpenak egiteko espezifikoki bideratuta dauden tresnak erabiltzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa eskuratzeko trebeziak garatu. - Simulazio programak erabiltzen dira zenbait prozesu ulertzeko, beraien garapena errealitatean oso zaila baita ikusten. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tresna informatikoak ezagutzen dira, informazioa atzitzeko, sortzeko eta komunikatzeko. - Sormena garatzen da dokumentazioa sortzerako garaian eta pentsamendu kritikoa garatzen da norberaren eta besteen ekoizpenak ikusita. - Edozein ikasle motari ahalbidetu behar zaio baliabide teknologikoak eskuragarri izatea, norbanako edo talde sozialen bazterketa saihesteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat aspekturi ekarpena egiten die, informazioaren tratamendurekin, informazioa ezagutza izateko eraldaketarekin eta ikasitakoa besteei komunikatzearekin erlazionatuta daudenak. - Baliabide informatikoekin egiten dira, ikasketa prozesu beraren kudeaketa autonomia eskatzen duten atazak; autoebaluazioa; ikasketa estrategia ezberdinak lantzea, horien artean: saiakera-hutsegitea, gertaeren erregistro sistematikoa edo talde-lana. - Ikasketa ingurune birtualak ikasketa autonomorako tresnak dira, bizitza osoa zehar erabil daitezkeenak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa modu egokian atzitzeko eta erabiltzeko, maila pertsonal zein sozialean, beharrezkoak dira ezagutza eta gaitasun batzuk. - IKTak erabiltzen dira ideiak eta iritziak trukatzeko diren proiektuetan, eta elkarte edo talde ezberdinen artean, zerbitzuak atzitzeko edo lankidetzak osatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ondorengo gaitasunen garapena: planifikazioa, irtenbideen bilaketa, iraunkortasuna, erroreak onartu eta haiengandik ikastea, jarrera malgua eta etengabeko moldaketa aldatzen ari den ingurune teknologiko batean. - Talde-lana egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide teknologikoak informazio eta adierazpen kultural nahiz artistikoak atzitzeko erabiltzea, horiek hurbil edo urrun egon daitezkeelarik, eta oso anitzak. - Programa informatikoa ezagutu eta baliabide teknologikoak erabili, ekoizpen artistikoak egiteko aukera gisa, alor guztietan (musika, literatura, ikusizko arteak, eszenikoak..) eta hizkuntza artistiko ezberdinak integratzen dituzten eduki multimedia berriak ekoizteko.

GAIA	Komunikazio linguistikoa	Matematika	Zientzia- teknologia- eta osasun-kultura	Informazioa tratatea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta ekimen pertsonala	Kultura humanistikoa eta artistikoa
KULTURA KLASIKOA	<p>- Hizkuntza klasikoak ezagutu, eta jabetu Europako hizkuntza asko jatorri berekoak direla (bat-etortze linguistikoa, eboluzioa, erabiltzen diren inguru geografiko eta sozialak, hizkuntza-aniztasun horrek suposatzen duen aberastasun kulturala...), Horrek hizkuntza guztienganako errespetua sustatzen du, ezberdintasun kultural linguistikoetan oinarritutako estereotipoen bazterketa bideratzen du, eta beste hizkuntza batzuk ikastea errazten du.</p> <p>- Hitzak sortzeko prozesu eta etimologia grekolatindarrak ezagutzeak, ahozko eta idatzizko ulermen hobe bat lortzen laguntzen du. Izan ere, hiztegi jaso bat gehitzen baitu, eta terminologia espezifikoak bai zientzian, bai eta teknikan ere.</p>	<p>- Matematika modernoaren jatorria ezagutu. - Ikasketa burutu bitartean atxikitako prozesu matematiko erabiltzen dira: ordena, logika, dedukzioa, arrazoi...</p> <p>- Matematika-hizkuntzan dauden etimo grekolatindarrak ezagutzeak kontzeptuen, enuntziatuen eta beste eduki matematiko batzuen ulermena hobetzen laguntzen du.</p>	<p>- Etimo grekolatindarrak ezagutzeak kontzeptuak, printzipioak eta teoria zientifikoak hobeto ulertzen laguntzen du.</p> <p>- Analisi eta ikerketa zientifikoko metodoak erabiltzen dira: konparaketa, dedukzioa, hipotesiak burutzea, datuen balorazioa...</p> <p>- Egoera fisikoaren zaintzeari ekarpena egiten zaio, eta egoera fisiko eta osasun ona izateko kezka dago (Olinpiadak, «mens sana in corpore sano»...)</p>	<p>- Informazioaren bilaketa, hautaketa eta tratamendurako prozesuak garatu: sintesi teknikak aplikatzen dira, gako hitzen identifikaziorako teknikak eta lanetan ideia nagusiak eta bigarren mailakoak banatzeko teknikak...</p> <p>- Informazioaren teknologiak erabiltzen dira informazioa unibertsal bihurtzen duten tresna gisa, eta lortutako ezagutza komunikatzeko baliabide gisa.</p>	<p>- Era berean, lagungarria da ikasleak ohar daitezen gizakia beti ikasten aritu dela gizadiaren historian zehar, eta ikasketa hori lehenago ikasitakoetan oinarritu dela. Gainera, pentsatzeko, antolatzeko, buruz ikasteko eta informazioa berreskuratzekeo estrategiak garatzen laguntzen du, besteak beste, laburpenak, eskemak edo mapa kontzeptualak.</p>	<p>- Antzinako greziarren eta erromatarren erakundeak eta bizimodua ezagutu, erreferente historikoa dira aspektu hauei dagokienean: antolaketa soziala, hiritarren parte-hartzea bizitza publikoan, eta norbanakoen nahiz kolektiboaren eskubide eta betebeharrak mugatzeko garaian.</p>	<p>- Planifikazioa, aukera ezberdinak ebaluatzea eta erabakiak hartzea eskatzen duten prozedurak erabili.</p>	<p>Gure herrialdean eta Europan, greziarrek eta erromatarrek utzitako ondare arkeologiko eta artistiko izugarria existitzen da. Ondare hau ezagutzea garrantzitsua da, eta erreferentzia gisa erabiltzea, kultura eta mitologia grekolatindarrak inspiratuta dauden ondorengo ekoizpen artistiko eta literarioen balorazio kritikoa egin ahal izateko.</p> <p>Komunikabideek zabaldutako mezuen aurrean kritiko izateko erreferentzia ere bada ondare hau.</p> <p>- Artea gozatu eta estimatu, gizakiaren sormenaren produktu gisa, eta historiaren testigantza gisa. Halaber interesa erakutsi ondarearen kontserbazioari dagokionez.</p>

GAIA	Komunikazio linguistikoa	Matematika	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura	Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ikasten ikasi	Sozial eta Hiritarra	Autonomia eta ekimen pertsonala	Kultura humanistikoa eta artistikoa
ERLIJIOEN HISTORIA ETA KULTURA	<ul style="list-style-type: none"> - Eztabaida eta elkarrizketaren erabilera sistematikoa egiten da, hausnarketa pertsonalen adierazpen idatziarekin batera. - Formatu ezberdina duen informazio idatzi eta grafikoa erabiltzen da. - Komunikazio plano ezberdinak ezartzen dira (berdinen artekoa, testu erlijioso eta filosofikoekin, internet, eta abar.) 		<ul style="list-style-type: none"> - Zientzia-erlijioa erlazioa eztabaidarako eta hausnarketarako elementu osagarri gisa. - Iturri ezberdinetako informazioa erabiltzen da, eta prozedura zehatzak aplikatzen dira, pentsamendu zientifiko teknikoaren ingurukoak direnak. - Natura, gaur egun dagoen garapen iraunkorrari buruzko eztabaida, eta osasunaren kultura gehitu ditugu erlijioaren interpretazio sinboliko bat egiteko gako elementu gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tresna digitalak erabiliko dira arloko informazioaren tratamendua egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gertaera sozialen analisi zorrotza eta arrazoi anitzekoa. - Lankidetzaz, hausnarketa eta balorazio pertsonala erabili, arrazoiaren laguntzaz. Erabili baita ere, adierazpena, gauzak zehazteko gaitasuna eta ideien aldatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sinesmen aniztasuna onartu behar da bizi dugun errealitate soziala ulertzeko, eta elkarbizitza demokratikorako. - Beharrezko gaitasun sozialen garapena: nola adierazi ideiak, berdintasunez erlazionatzen jakin, elkarrizketa bidezko komunikazioa... 	<ul style="list-style-type: none"> - Balorazioak egitea eta erabakiak hartzea. - Irizpide pertsonalak garatzen dira, laguntza gisa, asmoa martxan jartzeko erabakiak hartzen diren garaian. - Bizitzako helburuak eta helburu pertsonalak planifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erlijioa ezagutu produktu kultural gisa, eta konturatu sare sozialean eta hizkuntza artistikoan izan duen indarra. Izan ere, azken hori bere burua adierazteko erabili izan du. - Erlijioaren ekarpen kulturalak baloratzea.

HAUSNARTZEKO

- 1.- Zer ekartzen diote arlo edo ikasgaiek gaitasunen garapenari?
- 2.- Ekarpen horietatik, zeintzuk lantzen dituzu zeure eskola saioetan?

4.- ORIENTABIDE METODOLOGIKO OROKORRAK GAITASUNEN GARAPENARI LAGUNTZEKO

Gaitasunen lanketa eta garapena ikasketaren kontzepzio konstruktibista eta sozialaren barnean kokatu behar da. Ikuspegi honen arabera, ezagutza ez da errealitatearen kopia bat, baizik eta gizakiak eraikitzen duen zerbait lehendik dituen eskemak erabilia. Hortaz, ezagutza ez da hartze pasibo bat, baizik eta pertsonaren jardueraren emaitza, gizarte testuinguruetan gauzatzen dena.

Hori dela eta:

- Ikasleei baldintzak erraztu behar zaizkie ezagutzak eraiki ditzaten dakitenetik abiatuta, lehendik hartutako ezagutzetatik, egin beharreko ikasketekiko interesa eta motibazioa bilatuz.
- Arreta berezia eskaini behar zaie gizarte elkarreraginarekin lotutako alderdiei, irakaslearekin (ikasketa emaile izan beharko du ezagutza transmisore baino) eta gainerako ikasleekin (ikasketa prozesuetan berebiziko agente dira baita ere).
- Ikasle eta inguru fisiko eta sozialaren arteko elkarreragina bultzatu behar da, aurretiaz dituzten eskema eta ezagutzak mobilizatzeko. Ikasketak ez dira diziplinen edukien arabekoak izango, baizik eta ikasleak ariketa ebazteko erabiltzen duen egoeraren arabekoak. Hau da, jakiteari, egiten jakiteari eta izaten jakiteari buruzko ikasketak artikulatzea, konbinatzea eta transferitzean datza, egoera funtzional konplexuak ebazteko.

Hain zuzen, gaitasun bat garatzeak esan nahi du zerbait ikasi dutela eta **lortutako ikasketa horiek beste egoera edo arazo baten aurrean mobilizatzeko gai direla**. “Zerbaiti buruz” ikasteak esan nahi du “jakiteari” (gertakariak, kontzeptuak, printzipioak), “egiten jakiteari” (prozedurak, gaitasunak, trebetasunak) eta “izaten jakiteari” (jarrerak, motibazioa, gertutasuna) dagozkion dimentsioei arreta eskaintzea.

Ikasketa horiek banakoa era integratuan inplikatzeko duten jarduerak izan daitezke, eta horiek egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez jarduteko aplikatu (jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea) behar dira. Arazoei ematen zaien erantzunean erakusten da gaitasuna. Horrela, gaitasunetan oinarritutako ikasketan ikasleak bere ezagutzak antolatu eta berrantolatzen ditu, egoera eta errealitate berrietara transferitzeko.

Hortaz, egoera, arazo eta abarren ebazpenak zeregin garrantzitsua du gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspuntuan. Izan ere, horrelakorik gabe gaitasunak birtualak lirateke soilik eta ezin izango litzateke ahalmenetik ekintzara pasatu. Gaitasunak gauzatu, egiaztatu eta ikasleengan ebaluatzeko aukera bat da eta era berean, ikasten denari funtzionaltasuna eta zentzua ematen laguntzen du.

Bestalde, oinarrizko gaitasunak curriculum arlo eta ikasgai guztien erreferente komun bezala sartzeak hautsi beharko luke curriculumaren antolakuntza partekatua. Halaber, talde berari eskolak ematen dizkioten irakasleek ardura hartu beharko lukete ikasleek gaitasun komunak garatzeko. Horretaz gain, lan egin behar da ikasleen gaineko erantzunkidetasuna zabaltzen beste erakundeetara, eta horien artean familia, bereziki, gaitasun sozial eta hiritarrean eta autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna lortzen eragin handia baitu.

Azken finean, gaitasunetan oinarritutako curriculumaren proposamenaren ondorioz irakasleen funtzioa birplanteatzen da, oinarrizko hezkuntzaren arlo, ikasgai eta etapetako irakasleen arteko antolakuntza eta koordinazio era berriak; eta irakasle eta familien arteko lankidetzak, irakaskuntza prozesuak sintonizatzeko.

Oinarrizko gaitasunen deskribapenak arretaz irakurri ondoren, ikasgelan lantzeko eta garatzeko proposatzen diren inplikazio metodologikoak ondorioztatzea ahalbidetzen du:

ALDERDI METODOLOGIKOA	OINARRIZKO GAITASUNETAN ISLATUTAKO INPLIKAZIO METODOLOGIKOEN LABURPENA
PRINTZPIO METODOLOGIKOAK	<p>Ikasleengan sustatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Berezko gaitasun, muga, indarrez... eta hobetu daitekeenaz kontzientzia hartu eta horien azterketa egitea: nola ikasten den, erantzukizunez eta konpromisoz jardutea, auto-erregulatzea, erabakiak hartzea... ✓ Elkarrizketa erabiltzea errealitatearen ulermena hobetzeko eta gatazkak tratatzeko. ✓ Informazioa tratatzea arazo errealak ebazteko eta informazioa ezagutza bihurtzeko: antolatzea, lotzea, aztertzea, laburtzea; informazio berriaren eta aurretiko ezagutzen arteko loturak ondorioztatu, deduzitu eta ezartzea; ahoz eta idatziz eta adierazpen eta komunikazio modu ezberdinen bidez, komunikatzea.
SEKUENTZIA DIDAKTIKOA	<p>Sekuentzia didaktikoak ezagutzez jabetzeko urratsetara egokitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Arazoak identifikatu eta planteatzea, galderak egitea eta hipotesiak eta usteak adieraztea. ✓ Informazioa aurkitzea, lortzea (lortzeko teknika, estrategia eta euskarri ezberdinak erabiliz), analizatzea, irudikatzea, interpretatzea (aurreikusi, inferitu, ondorioztatu...), laburtu eta komunikatzea (lengoaia ezberdinetan eta bakoitzaren kodifikazio ezaugarriak kontuan hartuz: testua, zenbakizkoa, ikonoak, ikusizkoa, grafikoa, keinuak, soinua...; eta hainbat euskarritan: ahozkoa, inprimatua, ikus-entzunezkoa, digitala...) <p>Sekuentzia didaktikoak ezagutzen aplikazioan jarraitutako ordenari egokitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planifikatzea - Gauzatzea - Ebaluatzea - Komunikatzea <p>Sekuentzia didaktikoak egokitzea banakako eta taldeko proiektuak irudikatu, hasi, garatu eta ebaluatzean</p> <p>Aurretiko planteamenduak (eta, beharrezkoa bada, horietan birlantzea)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Konponbideak bilatu - Zerbitzuan jartzea - Ebaluazioa
IKASLEAK TALDEKATZEA	<p>Banakako lana</p> <p>Lan kooperatiboa: taldeka, lankidetzan, partekatutako esperientziak (enpatia, besteen ideiak balioestea, negoziazioa...)</p>
ESPAZIOA/DENBORA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasleekin garatu beharreko lan eta jardueren espazioak eta denborak egokitzea.
EDUKIAK AUKERATU ETA ANTOLATZEA	<p>Errealitateari zuzenean lotutako edukiak aukeratzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Benetako mundu fisikoarekin eta bere kopuru eta espazioekin lotutako gertakari eta gai zehatzak. ✓ Testuinguru askotako testuak eta komunikazio egoerari egokitutakoak: ✓ Egunerokoaren arazoak, gizarte arazoak... ebaztea. <p>Proiektukako lana: ideiak ekintza bihurtu.</p>
MATERIALAK ETA BALIABIDEAK	<p>Baliabide aniztasuna erabiltzea, IKTak barne: hizkuntzaren erabilera ezberdinetako testu eta egoera; egoera ezberdinak; testuinguru ezberdinak; askotariko informazio mota eta iturri; lengoaia artistiko ezberdinen teknika, baliabide eta arauak; askotariko materialak...</p>

5.- ORIENTABIDE OROKORRAK GAITASUNEN IKUSPEGITIK EBALUAZIOA EGITEKO

Ebaluazioak motorra izan behar du. Ezin da ikasketa eta irakaskuntza prozesuetatik bereizi; izan ere, ikasteak laguntzen du arazoak ikusten, oztopoak gainditzen eta akatsak aitortu eta zuzentzen.

Ahalmenak eta oinarrizko gaitasunen garapena sustatu nahi duen planteamenduaren ikuspegitik, ebaluazioak ez du soilik ezagutza batzuk lortu diren egiaztatu behar; prestakuntza, prozesua eta osotasuna ebaluatu behar ditu eta ikasleak dituen beharretara egokitu behar da.

Gaitasunen garapenean oinarritzen den ebaluazioa ezin da amaieran soilik gauzatu, prozesuaren fase guztietan egon behar da. Hasierako ebaluazio bat egiteko jarduerak planteatu behar dira, aurretiko ezagutzak neurtzeko (jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea) eta ezartzeko ikasle bakoitzaren hasierako egoera eta, horrela, plangintza egokitu.

Halaber, ikasle bakoitzaren zailtasun eta aurrerapenak agerian uzten dituzten jarduerak egin behar dira, hau da: ebaluazio hezitzailea egin behar da, erregulatzen laguntzeko, emaitzengan zuzeneko eragina izango duen prozesuzko ebaluazio bat. Izan ere, ikasteko, ikasleak bere zailtasunak ezagutu behar ditu. Ebaluazioa prozesuaren barnean sartzen denean baino ez dira azken emaitzak hobetzen.

Gaitasunetan oinarritutako ebaluazio planteamendu batean, agente askok egin ahal eta egin behar dute ebaluazioa, helburu ezberdinetatik abiatuta. Bizitzan zehar ikastea eta oinarrizko gaitasunak garatzea xede dituen planteamendu batean, irakasleek gain, ikasleak agente ebaluatzaile erabakigarriak dira.

Hori horrela izanik, ebaluazioak balio behar du ikasleak bere ikasketa prozesua erregulatu dezan, hots, bere zailtasunak zeintzuk diren ikus dezan eta nolakoak diren jakin dezan. Hortaz, auto-erregulatzen ikasi behar du: zergatik ikasten ari den kontrolatu, zer egin behar duen ikasteko eta zeintzuk diren erabili behar dituen irizpideak jakiteko ikasten ari den ala ez.

Horrek esan nahi du ikasleek ikasketen helburuak jakin behar dituztela euren lana planifikatzeko. Hori dela eta, sekuentzia didaktikoetan zehar, irakasleek azaldu eta ikasleekin adostu eta negoziatu behar dituzte, besteak beste, zein jarduera egingo dituzten, zertarako, zein izango den prozesua eta zer hartuko den kontuan lana ebaluatzeko. Bestalde, ikasleak dira auto-ebaluazio eta koebaluazio jardueren bidez irakaskuntza eta bere eta ikaskideen ikasketa prozesua ebaluatuko dituztenak.

Gaitasunak garatu ahal izateko haiei lotutako ezagutza batzuk lortu behar dira eta, horretaz gain, ezagutza horiek mobilizatu eta testuinguru batean elkarrekin aplikatu behar dira. Zentzu horretan, gaitasunak ebaluatzean, arazo-egoerak ebazteko prozesuak ebaluatzen dira. Beraz, ebaluazioaren abiapuntua ariketak izan behar dira, ahalik eta benetakoena eta errealitatean gerta daitezkeen egoerak nolabait simulatu behar dituzte.

Hala ere, Oinarrizko gaitasunek ez dute ebaluaziorako erreferentzia argirik ematen, baina curriculumeko beste elementu batzuekin elkarlotzen dira: helburuak, edukiak eta batez ere ebaluazio irizpideak. Horrela, ebaluazio irizpideen arabera, helburuak zein puntutaraino lortu diren neurtzen da eta, beraz, horien barneko gaitasunak zein puntutaraino lortu diren. Azkenik, ebaluazio-adierazleek ebaluazio-irizpideetan adierazitakoa zehazten dute eta, beraz, ebaluazioaren azken erreferenteak dira.

Bestalde, ebaluazioak aukera eman behar du erakutsi ahal izateko ikaslea gai dela ezagutza mota ezberdinak era bateratu eta koherentean mobilizatzeko gutxi gorabehera benetakoak diren egoeretan. Horrek ebaluazioa kokatzen du ikasketa eta irakaskuntza prozesuan zehar agertuko den jarduera konplexu baten baitan eta, horrenbestez, beharrezkoa da ebaluazio tresnak dibertsifikatzea. Horiek irakasleek eta ikasleek erabiltzen

dituzten baliabideak dira, ikasketa prozesuaren garapenari buruzko datuak biltzeko. Funtsean, tresna zehatz bat lortu nahi diren helburuen arabera aukeratu eta erabiltzen da.

Gauzak horrela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ebaluatzeko zenbait tresna bereiz daitezke, hala nola, kontratu didaktikoak, autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiak, klasekoen jarraipenerako txantiloiak... Horretaz gain, lortutako emaitzak ebaluatzeko tresnak ere ageri dira :galdetegiak eta testak, ikasleen ekoizpenak, ahozko eta idatzizko probak...

Laburbilduz, gaitasunen inguruko ebaluazioa zuzenean erlazionatuta dago prozesuaren eta prestakuntzaren ebaluazioarekin. Hau da, ebaluazioa ikasketaren hobekuntza ahalbidetzeko kontzeptu gisa ulertu behar da. Ikuspegi horren arabera, auto-erregulazioa elementu gako bihurtzen da, ikaslea ebaluaketaren eragile nagusi bihurtzea dakarrelako. Horretaz gain, ebaluazioak hainbat tresna erabiltzea eskatzen du, egoera, une eta testuinguru ezberdinetan ikasitakoa nola aplikatu den aztertzeko, informazioa bilduz.

HAUSNARTZEKO

1.- Gure zentroan badira dira erreferente metodologikoak edo esperientzia konkretuak, ikasgelan, gaitasunen arabera lan egiteko, gida metodologiko gisa erabil daitezkeenak? Zeintzuk?

2.- Ikasleek gaitasunak garatu ditzaten arlo edo gai guztien talde-lana beharrezkoa denez gero, nola helduko zenioke garapen horri?

3.- Aurreko atalean gaitasunen ikuspegi bat azaldu da. Ebaluaketa ikuspegi horretatik planteatzeak zer ondorio dakar, ikasgelako lanari eta irakasleen koordinazioari dagokionez?

6.- BIBLIOGRAFIA

Egile anitz (2007), **Las competencias básicas y el currículo: orientaciones generales**, Cuadernos de Educación 2, Consejería de Educación de Cantabria.

http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_2.PDF

Egile anitz (2008), **Hacia un enfoque de la educación EN COMPETENCIAS**, Consejería de Educación y Ciencia de Asturias.

<http://www.educastur.es/media/publicaciones/enfoquemail.pdf>

GOÑI, J.M., (2005), **El espacio europeo de educación superior, un reto para la universidad**, Octaedro/ICE-UB, Bartzelona.

PÉREZ GÓMEZ, A. (2007), **La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas**, Cuadernos de Educación 1, Consejería de Educación de Cantabria.

http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_1.PDF

PERRENOUD, P. (2004), **Diez nuevas competencias para enseñar**, Graó, Bartzelona.

SANMARTÍ, N. (2007), **Evaluar para aprender**, Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.

ZABALA, A. y ARNAU, L. (2007), **Cómo aprender y enseñar competencias**, Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.

(2006), **Resolución legislativa del Parlamento Europeo relativo a la propuesta de Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente.**

http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004_2009/documents/pr/609/609848/609848es.pdf

(2007) **175/2007 DEKRETUA**, azaroaren 13koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa.**

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/v_eranskina_01_hizkuntzak.pdf